

OBRA TXIKIA: ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA

..... jaun/andrea,
..... NAN/IFZ duena, bere izenean edo ondoren aipatzen denaren ordezt
.....
NAN/IFZ....., jakinarazpenak jasotzeko helbidea
..... duena
telefono-zenbakia..... eta helbide elektronikoa

Bere erantzukizunpean **ADIERAZTEN DU:**

LEHENENGOA. Sustatzailea naizenez, hurrengo obra txikia egin nahi dut:

.....
ondoko arauetan agindu denarekin bat etorritz: 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duenaren 192 eta 195 artikuluetan eta udal-ordenantzan, hirigintza arloko lizentziak emateari eta erantzukizunpeko adierazpenak egiteari buruzkoan. Hona hemen obra txikiaren datuak:

• - Jardueraren deskribapen zehatza:

.....
.....
.....
.....

• - Obrek ukitutako azalera:

• - Betearazteko aurrekontua: euro.

• - Kokapena:

• - Betetzeko epea (gehenez), erantzukizunpeko adierazpen hau aurkeztu denetik hasita:

• - Kontratatzailea:

• - Obra-hondakinak izanen dira:

BAI
EZ

 (egokia ez dena ezabatu)

• - Bide publikoa erabiliko da:

BAI
EZ

• - (...).

BIGARRENA. Hirigintzan eta sektorean ezargarri diren arauetan jaso diren betekizunak eta betebeharrak ezagutzen eta betetzen dituela –modu berezian, 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena; BERAko hirigintza planeamendua; Eraikuntzaren Kode Teknikoa, e.a.–, burutu nahi den obra txikia betetzearen inguruan, eta, halaber, horrela dela egiaztatzen duten agiriak ere badituela.

HIRUGARRENA. Hurrengo agiriak atxiki zaizkiola erantzukizunpeko adierazpen honi, bai–1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duenaren 195 artikuluan, bai udal-ordenantzan xedatu denarekin bat etorritz, hirigintza arloko lizentziak ematearen eta erantzukizunpeko adierazpen ingurukoan. Hona hemen agiriok:

- 1. Dagokion tasa ordaindu izanaren egiaztagiria.
- 2. Txosten teknikoa, irudiz eta idatziz adierazitakoa, jarduera eta kokalekua deskribatzea duena helburu.
- 3. Higiezinaren egoerari buruzko argazki zehatzak (*kokalekuaren ikuspegi guztiak jasoko dira*).
- 4. Egin beharreko obraren aurrekontua, obraren eraikitzaileak sinatuta.
- 5. Obra txikia burutzeko baimenak, unean-unean ezargarri diren sektore arauetan galdatzen direnak.
- (...).

LAUGARRENA. Idatzi honetan jaso diren datuak eta adierazpenak egiazkoak direla, eta adierazleak jakin badakizkiela hurrengoak:

- a) Edozein datu, adierazpen edo agiri, erantzukizunpeko adierazpenari erantsi edo gaineratzen zaiona, zehatza ez bada, faltsua bada edo oinarritzko zerbait ez badarama, baita ezargarri diren arauetan galdatutako betekizunak ez baditu ere, horrek ekarriko du eskatutako hirigintza jarduerari ezin ekin izatea, hori gertatu dela ezagutzen denetik. Hala ere, erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak ere egon daitezke.
- b) Erantzukizunpeko adierazpenarekin ez da hirigintza legeriaren edo planeamenduaren aurka doan inolako ahalmenik eskuratuko.
- c) Deusezak dira zuzenbide osoz legeriaren edo hirigintza planeamenduaren aurkako adierazpenak, eragingarri izateko funtsezko betekizunak ez badituzte.

Beran, ____ (e)ko ____ (a)ren ____ (e)an.

Aitortzailea,

Udal arkitekto teknikoak ontzat emana eta sinatua:

Beran, 20____ (e)ko _____ (a)ren ____ (e)an.

BERAKO UDALEKO ALKATEA